

M.U.-ko ikasle talde batek www.oroituz.org sortu du

2007/05/24

Ingeniaritza Informatikoko 4. mailan (2004-2005), Proiektuen Kudeaketa ikasgaiaren barne, **web aplikazio** bat burutzeko eskatu zioten M.U.-ko ikasle talde bati..

Baliagarria izan zitekeen proiektu baten bila, “**Lurpean Gordetako Historia Oroituz**” taldearekin jo zuten, zeinak Espainako gerrako biktimen errekonozimendua eta memoria historikoa berreskuratzea zuen helburu. Lorturiko emaitza www.oroituz.org helbidean duzue ikusgai.

Ikasleek beraien **eskerrik** beroena eman nahi diote Oroituz taldeari elkarlan posible egiteagatik eta irakasleei proiektuan eskainitako laguntzagatik, eta aipamen berezia bidean galdu dituzten bi taldekide eta lagun minei.

